

---

# PREBENTZIO- ETA JARDUKETA-PROTOKOLOA\*

## COVID-19aren AURREAN

### *“LEINTZ ESKOLA KIROLA”*

---

\* Protokolo hau LEINTZ ESKOLA KIROLA osatzen duten ikastetxe bakoitzaren errealitatera eta funtzionamendura egokitu da, hori bai, erakundeek eskola-kirolerako ezarri dituzten Jarduteko Arau Orokorrak eta erakundeak garatzen dituen kirol-jarduera edo diziplanetako Arau Espezifikoak errespetatuz.

### GAZTELUONDO GUNEKO

### ESKOLA KIROLEKO JARDUEREN PROTOKOLOA

---

## AURKIBIDEA

---

- 1. JUSTIFIKAZIOA, HELBURUAK ETA APLIKAZIO ESPARRUA**
  - 1.1. JUSTIFIKAZIOA
  - 1.2. HELBURUAK
  - 1.3. APLIKAZIO-ESPARRUA
  
- 2. PROTOKOLOAREN ARDURA DUTEN ORGANOAK ETA PERTSONAK**
  - 2.1. ERAKUNDEKO OSASUN-ARDURADUNA
  - 2.2. ERAKUNDEKO ZUZENDARITZA- EDO ADMINISTRAZIO-ORGANOAK
  - 2.3. INPLIKATUTA DAUDEN BESTE ERAGILE BATZUK
  
- 3. PREBENTZIO-ELEMENTUAK**
  - 3.1. PREBENTZIO- ETA HIGIENE-NEURRI OROKORRAK
  - 3.2. MASKAREN ERABILERA
  - 3.3. JARDUERAK: SAIOAK, ENTRENAMENDUAK ETA LEHIAKETAK
    - 3.3.1. JOLAS HEZI PROGRAMA
    - 3.3.2. MULTIKIROLA PROGRAMA
    - 3.3.3. AISIALDI KIROL JARDUERAK PROGRAMA
    - 3.3.4. ESKOLA KIROL EGOKITUA PROGRAMA
  - 3.4. JARDUEREI LOTUTAKO BESTE ELEMENTU BATZUK
  
- 4. COVID-19ko KASUEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA**
  - 4.1. FAMILIEN ETA GAINERAKO PERTSONALAREN JARDUKETA
  - 4.2. KIROL-ERAKUNDEAREN JARDUKETA
  
- 5. DIZIPLINA-NEURRIAK ETA HAUEK BETETZEN DIRELA KONTROLATZEA**
- 6. PROTOKOLOA ETA HARTUTAKO NEURRIAK HEDATZEA ETA EZAGUTZEA**
- 7. PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA**

---

## 1. JUSTIFIKAZIOA, HELBURUAK ETA APLIKAZIO-ESPARRUA

---

### 1.1 JUSTIFIKAZIOA

Zalantzarik ez dago 2020-2021 ikasturtea berezia izango dela, COVID-19ari esparru guztietatik aurre egiteko, aurrean dugun egoera berri eta aparta kontuan hartuta.

Eskola-kirolari ez zaio arrotz egoera hori, inondik inora ere ez. Argi daukagu funtsezkoa dela gure adingabeen kirol-jarduera ziurtatzea. Eta ez osasunaren, sozializazioaren edo jolasaren ikuspegitik ariketa fisikoa egitea haurrentzat beharrezkoa delako bakarrik, baita, horrez gainera, kirola erregulartasunez egiteak immunitate-sistema indartzen laguntzen duelako ere, eta horrek, aldi berean, gaixotasunari aurrea hartzen eta sintomatologia arintzen laguntzen du.

Eskolako kirol-jarduera fisikoaren ezaugarriek (instalazioak, materialak, kontaktuak, taldeko joan-etorriak eta gaua igarotzea eskatzen duten jarduerak, kirolarien adina) asko zailtzen dute eskola-kiroleko programak eta egungoa bezalako krisi-egoera sanitarioa uztartzea.

Hori dela eta, kirol-erakunde guztiek ezarri behar dituzte kirolarien, teknikarien eta jardueretan esku hartzen duten gainerako eragileen artean kutsatzeko arriskua gutxitzea ahalbidetuko duten prozedurak. Protokolo honetan jaso diren prozedura horiek aldatu egiten dituzte kirola egiteko baldintzak, hain zuzen ere, pandemiaren aurrean segurtasuna areagotzeko, ezin litekeenez bestela izan.

Horrela, funtsezkoa da kirolariak, familiek, teknikariak eta erakundeko gainerako eragileek egoera ulertzea. Urte berezia dugu hau, jarduerak egokitu egin behar izan dira edo beste era bateko jarduerak egin beharko ditugu, eta denok jabetu behar dugu hauek direla posible diren baldintza bakarrak eta onenak baldin eta une honetan dugun errealitate honetan kirol-jarduera fisikoak garatu nahi baditugu.

Gogoan izan behar da protokolo honetan jaso diren neurriek osasun-agintariak eta kirol administrazioek ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen dituztela, eta horiek, pandemiaren intzidentziari eta eskumenak dituzten erakundeek hartzen dituzten erabakien arabera, aldatu egin daitezkeela.

Azkenik, protokolo hau zuzen ezartzeak eta, ondorioz, kirol-jarduera seguruak egiteak eskatzen du konpromiso irmoa hartzea inplikaturako pertsona guztiek, hau da, familiek, kirolariak, teknikariak, erakundearen arduradunek, etab. Hartu beharreko neurriak aplikatzean, funtsezkoa da erakundea osatzen duten pertsona guztien eta bakoitzaren erantzukizun indibiduala eta kolektiboa.

## **1.2. HELBURUAK**

Erakundeak protokolo honekin duen helburu nagusa honako hau da:

- kirol-jarduerak segurtasun-baldintzatan antolatu, eta, horretarako, dagozkion prebentzio- eta higiene-neurriak ez ezik COVID-19arekin erlazionatutako kasuak edo egoerak hautematen direnerako jarduketa-jarraibideak ezarri.

Helburu hori lortzeko, oinarritzkoa da:

- Kirol-erakundea osatzen duten pertsona guztiei erantzukizun indibidualaren eta kolektiboaren garrantziaren berri ematea, guztiak horren inguruan sentibilizatu eta kontzientziatzea, eta arriskuei aurrea hartzeko eta kasu baten aurrean jarduteko jarraibideak ematea.

Horrela, funtsezkoa da protokolo honetan jasotako helburuak, neurriak eta orientabideak behar bezala komunikatzea/hedatzea, baita horiek etengabe ebaluatzea ere, jarraipena etengabea izan dadin eta, hala badagokio, aurrean ditugun egoera aldakor eta berrietara egokitu ahal izan dadin.

## **1.3. APLIKAZIO-ESPARRUA**

Protokolo hau aplikatuko da erakundeak antolatzen dituen eta foru-aldundiaren eskola kiroleko programen esparruan garatzen diren era guztietako jardueretan, hau da, lehiaketa-, irakaskuntza-, detekzio-, jolas- edo kirol- eta kultura-jardueretako saioetan.

Era berean, erakundeak eskola-kiroleko programetatik kanpora antolatzen dituen eta foru aldundiak baimenduta dauden jardueretan ere aplikatuko da.

---

## 2. PROTOKOLOAREN ARDURA DUTEN ORGANOAK ETA PERTSONAK

---

### 2.1. ERAKUNDEKO OSASUN-ARDURADUNA\*

Erakundeak eskola kiroleko jardueretarako osasun-arduradun bat izendatu du Arizmendi ikastolako Gazteluondo gunean (Ikus eranskina I. Osasun arduradunaren izendapen agiria)

Pertsona hori izango da protokoloaren arduradun teknikoa, eta berak zainduko ditu horren dinamizazioa eta funtzionamendu egokia.

Pertsona horrek badu Kirolaren Euskal Eskolaren bidez erakundeek irudi horrentzat garatu duten prestakuntza agiria. (Ikus eranskina II. Prestakuntza Beteta izanaren agiria edo diploma)

Honakoak izango dira bere eginkizunak, zehatzago adierazita:

- Erakundeak jarduten duten langile guztiei, baita kirolari adingabeen familiei ere, jakinaraziko dizkie ezarrita dauden prebentzio-, jarduketa- eta, hala badagokio, diziplina-neurriak. Jatorrizko informazioa nahiz ondoren egindako edozein aldaketa jakinaraziko die.
- Gainbegiratuko du adingabe bakar batek ere ez duela jarduera hasiko bere familiak protokoloaren berri baduela, protokoloa onartzen duela eta betetzeko konpromisoa hartzen duela jasotzen duen agiria sinatu eta erakundera bidali arte. Berdin jokatu du teknikariekin eta arbitroekin jarduerari hasiera eman aurretik.
- Etengabe gainbegiratuko ditu erakundearen jarduerak, hain zuzen, protokoloan jaso diren prebentzio- eta higie-neurri guztiak eta eskumenak dituzten agintariek ezarritako gainerako arauak betetzen direla ziurtatzeko.
- Jarduketa koordinatuko du eta beharrezko komunikazioa ezarriko du osasun-agintariek eta/edo familiekin edo eragindako pertsonekin baldin eta jarduerak garatzen diren bitartean sintomak dituen pertsona bat edo COVID-19 kasu bat hautematen bada.

COVID-19ari aurre egiteko prebentzio-neurriak ez betetzeagatik eragindako arriskuekin zerikusia duten arau-haustek erakundearen barne-araubideko edo diziplinako erregelamenduan sartzeko proposamenak garatuko ditu eta gobernu- edo zuzendaritza organora bidaliko ditu haiek onar ditzaten.

Protokoloa betetzen ez den kasuetan erakunde zuzendaritza- edo administrazio-organok hartu beharreko diziplina-neurriak ezartzeko proposamena egingo du.

Beharrezko kudeaketak egingo ditu protokoloarekin zerikusia duen informazioa erakundearen webgunean jarrita egon dadin. Jatorrizko informazioa nahiz ondoren egindako edozein aldaketa jarriko da.

- Dagozkion salbuespenak ezarriko ditu aldagelak erabiltzeari, laguntzaileak sartu ahal izateko baimenari eta antzekoei dagokienez.
- Protokoloari buruz egiten den edozein informazio-eskaerari erantzungo dio.
- Protokoloa etengabe ebaluatuko du eta, hala badagokio, hura egokitzeko proposamenak helaraziko dizkio erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoari.

Une hauetan, honakoa hauek izango dira erakundeko osasun-arduradunak:

- JULEN ARANBARRI, Arizmendi ikastolako Gazteluondo guneko eskola kiroleko koordinatzailea.

## **2.2. ERAKUNDEKO ZUZENDARITZA- EDO ADMINISTRAZIO-ORGANOA**

Honakoak izango dira erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoaren eginkizunak:

- Erakundeko osasun-arduraduna izango den pertsona izendatu.
- Protokoloa eta, hala badagokio, protokoloan egiten diren aldaketak onartu.
- Hala badagokio, COVID-19ari aurre egiteko prebentzio-neurriak ez betetzeagatik eragindako arriskuekin zerikusia duten arau-hausteak erakundearen barne-araubideko edo diziplinako erregelamenduan sartzeko proposamenak onartu.
- Dagozkion diziplina-neurriak ezarri protokoloa betetzen ez den kasuetan.

## **2.3. INPLIKATUTA DAUDEN BESTE ERAGILE BATZUK**

Protokoloa behar bezala eta modu seguruan ezartzeko, ezinbestekoa da kirol-erakundea osatzen duten gainerako pertsonen (teknikarien, kirolarien, familien, arbitro-taldearen, eskolakirolaren arduradunaren) inplikazioa.

---

### 3. PREBENTZIO-ELEMENTUAK

---

#### 3.1. PREBENTZIO- ETA HIGIENE-NEURRI OROKORRAK

Gazteluondo guneko LH 1. Eta 2. Mailako ikasleek eta multikirola aukera egin behar duten LH 3. Eta 4. Mailako ikasleek (**multikirola aukera**) eskola kiroleko jarduerak Gaztelupe gunean eta gazteluondoko frontoian egingo dituzte. Gazteluondo gunean obretan ari direnez, eta instalakuntza erabilgarri ez dagoenez, esandako ikasleak gaztelupe gunera pasatuko dira, obrak bukatu bitartean. Ikastolak kudeatzen duenez, ikastolak ezarritako prebentzio neurriak, 2020-2021 ikasturteko eskola-kirolerako Jarduteko Arau Orokorretan ezarritako neurriak errespetatuko dira.

**AISIALDI KIROL JARDUERAK** aukera aukeratu duten LH 3-4-5 eta 6. mailako ikasleek, saioak iturripeko frontoian egingo dituzte, gazteluondoko obrak bukatu bitartean.

**MULTIKIROLA LH 5-6:** Aukera hau aukeratu duten ikasleek, iturripeko kantxa esatalian egingo dituzte saioak urte osoan zehar. Instalakuntza hau Arrasateko udaletxeak kudeatzen duenez, beraiek ezarritako prebentzio neurriak, 2020-2021 ikasturteko eskola-kirolerako Jarduteko Arau Orokorretan ezarritako neurriak errespetatuko dira. (III. Eranskina, Iturripe kiroldegiko protokoloa)

Ondorengo puntuetan zehazten dira eskola kiroleko jardueretarako hartuko diren neurri espezifikoak:

#### **a. JENDE-PILAKETAK SAIHESTEKO ANTOLAKETA-NEURRIAK**

- **SARRERA LH 1-2:** Begiralearekin elkartuko dira gazteluondoko goiko frontoian. Talde bakoitza bere begiralearekin elkartuko da (adieraziko dugu non zehazki) eta ondoren, 2 talde, modu eskalonatu batean, gaztelupeko gunera joango dira eta hirugarren talde bat badago, gazteluondoko frontoian geratuko dira Saioa egiten. Segurtasun distantzia mantenduz eta maskarilla jarrita eramatea beharrezkoa izango da.
- Gaztelupeko 2. Pisuko ate beltzetik sartuko dira modu eskalonatu batean. Gimnasioetara sartu aurretik eskuak garbituko dituzte, bertan izango dute gel hidroalkoholikoa. Irteera ere sarrera egiten den lekutik egingo da eta begiraleekin joango dira gurasoak ikasleak jaso ditzaten. Saio bukaeran ere eskuak garbituko dituzte.
- **SARRERA LH 3-4:** Begiralearekin elkartuko dira Gaztelupeko 2. Solairuko espazioan (adieraziko dugu non zehazki). Lehenago saioa dagoenez, aurreko saioko ikasle denak atera arte, 2. Solairuko saskibaloiko kantxan itxarongo dute ikasleek. Behin denak ateratzen direnean, begiraleekin elkartuko dira. Denak egon arte etxoingo dute, distantzia mantenduz eta maskarilla jarrita. Saioa hasi aurretik eskuak garbituko

dituzte, bertan dagoen gel hidroalkoholikoarekin. Hirugarren taldea dagoen kasuetan, eta euria egiten badu, gazteluondoko frontoira joango dira Saioa egitera.

- Puntualtasuna eskatuko da denak batera sarrera egiteko.
- Instalakuntzako arauak errespetatuko dira (sarrera-irteerak, zirkulazio ibilbideak, aforoak, ...).
- IRTEERA: Saioa amaitzean talde guztia batera irtengo da gunetik begiralearekin, adierazitako irteera gunetik.
- Gurasoei puntualtasuna eskatuko zaie, seme-alabaren bila datorren kasuetan eta kiroldegi kanpoan etxoin beharko dute.
- Ikasleren batek saioa amaitu aurretik irten edo saiora berandu etorri behar badu (arrazoiren bat dela medio) aurreko egun edo saioan jakiraziko dio gurasoak/tutoreak begirale edo koordinatzaileari.
- 
- **SARRERA AISIALDI KIROL JARDUERAK LH 3-4-5-6:** Aukera hau aukeratu duten ikasleak zuzenean iturripeko frontoietara joango dira. Saioak 16:45etan hasiko dira eta 17:45etan bukatu. Frontoira heltzen direnean, talde bakoitza bere begiralearekin elkartuko da adierazita egongo den eremuan. Saioa hasi baino lehenago, begiraleak edukiko duen gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte.
- Puntualtasuna eskatuko da denak batera sarrera egiteko.
- Instalakuntzako arauak errespetatuko dira (sarrera-irteerak, zirkulazio ibilbideak, aforoak, ...).
- IRTEERA: Saioa amaitzean talde guztia batera irtengo da gunetik begiralearekin, adierazitako irteera gunetik.
- Gurasoei puntualtasuna eskatuko zaie, seme-alabaren bila datorren kasuetan eta kiroldegi kanpoan etxoin beharko dute.
- Ikasleren batek saioa amaitu aurretik irten edo saiora berandu etorri behar badu (arrazoiren bat dela medio) aurreko egun edo saioan jakiraziko dio gurasoak/tutoreak begirale edo koordinatzaileari.
- **SARRERA ITURRIPEKO INSTALAKUNTZA: LH 5-6:** LH 5-6. mailako ikasleak iturripeko kantxa estalian egingo dituzte saioak. 17:45etan hasten dira saioak eta ordurako instalakuntza kanpoan egon behar dira. Begiralearekin kanpoan elkartuko dira eta denak daudenean, gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbitu eta barrura sartuko dira, talde bakoitzari egokituko zaion espaziora.
- Puntualtasuna eskatuko da denak batera sarrera egiteko.
- Guneko arauak errespetatuko dira (sarrera-irteerak, zirkulazio ibilbideak, aforoak, ...).
- IRTEERA: Saioa amaitzean talde guztia batera irtengo da gunetik begiralearekin, adierazitako irteera gunetik.



- Gurasoei puntualtasuna eskatuko zaie, seme-alabaren bila datorren kasuetan eta kiroldegi kanpoan etxoin beharko dute.
- Ikasleren batek saioa amaitu aurretik irten edo saiora berandu etorri behar badu (arrazoiren bat dela medio) aurreko egun edo saioan jakiraziko dio gurasoak/tutoreak begirale edo koordinatzaileari.

***\*Taldeak gelaka egingo dira, posible ez bada mailaka eta hau posible ez bada, zikloka.***

***\*Alarma egoeraren legedi berriarekin, eskola kirola baimenduta dago 6 ikasleko taldeetan. Gela berdineko taldeak badira eta ikastetxean edo kiroldegi edo instalakuntza publikoan egiten badira saioak, ez da beharrezkoa izango taldekatze hauek egitea.***

***\*Taldekatzek mailak edo zikloka badira, gehienez 6 ikasleko azpitaldetan egin beharko dituzte saioak eta begirale berdina egon daiteke azpitalde bat baino gehiagorekin.***

#### **b.ESKUEN HIGIENEA**

- Instalakuntzetara sartu aurretik begiraleak izango duen gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte.
- Saioan zehar etenaldi bat egingo da saio erdialdera eta gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte eta beharrezkoa den guztietan.
- Saio amaieran ere eskuak garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin instalakuntzatik irten aurretik. .

#### **c.GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA**

- Saioan zehar materialik ez erabiltzea lehenetsiko da. Materiala erabiltzen bada, amaieran begiraleak desinfektatuko du spray eta papera edo oihal batekin.
- Bestelako desinfekzio eta garbiketa neurriak instalakuntzaren arabera izango dira.
- Era berean, erabilitako babes-materialak (maskarak) behar bezala botatzeko elementuak jarriko dira.

#### **d.ESPAZIOAK ETA INSTALAZIOAK AIREZTATZEA**

- Espazioen aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko da, barnean airea berritzen laguntzeko, ahal den neurrian kanpoko airearekin lan eginez, birzirkulazioa minimizatuz eta barruko aire-korronteak saihestuz.

### 3.2. MASKAREN ERABILERA

- Eskolako Gorputz hezkuntzako saioetan egiten den bezala jokatu dugu eskola kirolean ere. Jarduera fisikoa intentsitatea altukoa denean maskarilla jaitziko dute okotzean eramanez eta berriz ere jarriko dute hitzegiteko edo etenaldiak ematen direnean.
- Teknikariek maskara jantzita eduki beharko dute beti.
- Osasun alorreko agintariek une oro zehaztutako moduan erabiliko dira maskarak eta baimendutako pertsonak (arnasketa arazoak, desgaitasunak eta abar dituztenek) ez dute maskara jantzi beharko, nahiz eta horretarako, medikuaren agiria aurkeztu beharko duten.

### 3.3. JARDUERAK: SAIOAK, ENTRENAMENDUAK ETA LEHIAKETAK

#### 3.3.1. JOLAS HEZI PROGRAMA (LH 1+2), JARDUEREN ANTOLAKETA ALDERDIAK:

Neurri espezifikoak, COVID-19ak eragindako egoerara egokitzeko.

- Taldeek gutxieneko eta gehieneko izen emateen kopuruari eta monitore/ikasle ratioari buruzko irizpideak mantenduko dituzte (15 gehienez), baina jarduerak azpitaldeetan banatuta egingo dira.
- Irakaskuntza saioetako jarduerak erreferentziazko 5 ikasle inguruko azpitalde egonkorretan garatuko dira.
- Ez da egingo 5 ikasle gorako taldeak eskatzen dituzten lankidetzak edo elkarlan-oposizio gisa definitutako jarduerarik.
- Saioak edo entrenamenduak indibidualak izango dira, eta egin beharreko ariketetan pertsonen arteko gutxieneko segurtasun distantzia mantenduko da (gaur egun 1,5 metrokoa da).
- Arizmendi ikastolako gazteluondo guneak ezarritako talde egonkorrek kontutan izanda antolatuko dira taldeak; mailaka hain zuzen ere LH 1. Maila alde batetik eta LH 2. Maila bestetik.

#### 3.3.2. MULTIKIROLA PROGRAMA, JARDUEREN ANTOLAKETA ALDERDIAK:

Neurri espezifikoak, COVID-19ak eragindako egoerara egokitzeko.

- Irakaskuntza saioen edo entrenamenduen bidez soilik emango zaie hasiera jarduerari. Hasieran, baimentzen ez den bitartean, ez da lehiaketa jarduerarik edo topaketarik egingo.
- Taldeek gutxieneko eta gehieneko izen emateen kopuruari eta monitore/ikasle ratioari buruzko irizpideak mantenduko dituzte, baina jarduerak azpitaldeetan banatuta egingo dira. Taldeak 10 izen emate baino gehiago baditu, saioak 8 ikasleko azpitaldetan egingo dira gehienez.
- Saioak edo entrenamenduak ahalik eta indibidualizatuenak izango dira, eta, ahal dela, ahalegina egingo da egin beharreko ariketetan pertsonen arteko gutxieneko segurtasun distantzia mantentzeko (gaur egun 1,5 metrokoa da).

- Arizmendi ikastolako gazteluondo guneak ezarritako talde egonkorak kontutan izanda antolatuko dira taldeak; gelaka posible bada, ezin bada mailaka eta kasu batzuetan zikloka egingo dira saioak.
- Multikirola programan ez dira hainbat ikastetxetako ikasleen artean baterako jarduerak egingo, debekatuta baitago.

### 3.3.3. AISIALDI KIROL JARDUERAK PROGRAMA, JARDUEREN ANTOLAKETA ALDERDIAK: Neurri espezifikokoak, COVID-19ak eragindako egoerara egokitzeko.

- Irakaskuntza saioen edo entrenamenduen bidez soilik emango zaie hasiera jardueri. Hasieran, baimentzen ez den bitartean, ez da lehiaketa jarduerarik edo topaketarik egingo.
- Taldeek gutxieneko eta gehieneko izen emateen kopuruari eta monitore/ikasle ratioari buruzko irizpideak mantenduko dituzte, baina jarduerak azpitaldeetan banatuta egingo dira. Taldeak 10 izen emate baino gehiago baditu, saioak 8 ikasleko azpitaldetan egingo dira gehienez.
- Saioak edo entrenamenduak ahalik eta indibidualizatuenak izango dira, eta, ahal dela, ahalegina egingo da egin beharreko ariketetan pertsonen arteko gutxieneko segurtasun distantzia mantentzeko (gaur egun 1,5 metrokoa da).
- Arizmendi ikastolako gazteluondo guneak ezarritako talde egonkorak kontutan izanda antolatuko dira taldeak; taldeak gelaka izatea lehenetsiko da, posible ez bada, mailaka banatuko ditugu taldeak eta hau posible ez bada, zikloka jarriko ditugu. Ziklo ezberdinen artean ez ditugu ikasleak nahastuko.
- Aisialdi kirol jardueren programan ez dira hainbat ikastetxetako ikasleen artean baterako jarduerak egingo, debekatuta baitago.

### 3.3.4. ESKOLA KIROL EGOKITUA, JARDUEREN ANTOLAKETA ALDERDIAK:

Neurri espezifikokoak, COVID-19ak eragindako egoerara egokitzeko.

Lehentasunez, 4 eta 8 parte-hartzaile arteko taldeak egongo dira mendetasun-mailaren arabera, eta beharrezko arreta-ratioa 2 begiralekoa izango da. Kasu zehatz batzuetan, 1/1 ratioa ezinbestekoa izango da, erabiltzailearekiko mendekotasuna dela eta.

- Saioak edo entrenamenduak ahalik eta indibidualizatuenak izango dira, eta, ahal dela, ahalegina egingo da egin beharreko ariketetan pertsonen arteko gutxieneko segurtasun distantzia mantentzeko (gaur egun 1,5 metrokoa da).
- Ahal den neurrian, ikasgeletako talde egonkorak mantenduko dira. Ezin bada, azpitalde egonkorak egingo dira.
- Programak aire zabaleko jarduerekin hasiko dira, edo, ezinezkoa bada, aretoan bertan. Uretako jardueren kasuan, programaren koordinazioak ebaluatu beharko du jarduera hastea edo denboran atzeratzea komeni den.

### *JARDUERAK AIRE ZABALEAN*

Ahal den guztietan, jarduerak aire zabalean egingo dira.

### *MATERIALEN ERABILERA*

Ahal den neurrian, materialen erabilera partekatua saihestuko da. Lehiaketa/jarduerarako ezinbestekoak diren erabilera komuneko materialei gomendatutako higie eta garbiketa neurriak aplikatuko zaizkie. Gainerako materialak (edariak, elikagaiak, sendagaiak, etab.) ezin izango dira partekatu.

Inola ere ezingo dira partekatu ur-botilak; kirolari bakoitzak bere botila eraman beharko du, norberaren izena nabarmen ikusteko moduan jarrita, nahasketarik izan ez dadin. Berdin jokatu da saioan zehar norberak erabiltzeko bestelako kirol-materialarekin edo material osagarriarekin (toallak, petoak, etab.), kirolarien artean nahasketarik izan ez dadin. Ezingo dira partekatu janariak eta edariak, ezta mukizapiak edo antzeko elementuak ere; guztiak indibidualak izango dira. Kirolariak asko izerditzen duten, airea indarrez botatzen duten edo listu asko jariatzen duten jardueretan, gomendagarria litzateke kirolari bakoitzak toalla bat eramatea jarduerara eta, tarteka, teknikariak atsedena bat egitea garbitzeko.

Botikineko materiala erabiltzen denean, erabili duen pertsonak erabili eta botatzeko eskularruak jantziko ditu beti.

### *ALDAGELAK*

Debekatuta dago aldagelak erabiltzea, egoerak hala eskatzen duenean izan ezik (eguraldi txarra denean, beste herri batzuetan bizi diren haurrak eta joan-etorri luzeak egin behar dituztenak daudenean, uretako jardueretan, etab.). Osasun-arduradunak ezarriko ditu neurri honen salbuespenak.

Aldagelak erabili behar izanez gero, jarduerako teknikariak ezarriko du babes-arauak eta pertsonen arteko distantzia fisikoa errespetatzeko sistema bat. Txandak egiten badira, jarduerak garatzeko ezarritako azpitaldeak hartuko dira kontuan.

Horrela, entrenamenduen edo lehiaketen aurretik, horiek egiten diren bitartean eta ondoren antolatu nahi izaten diren hitzaldi teknikoak, baldintzek ahalbidetzen badute, jokalekuan bertan edo kirol-instalazioen harmailetan egingo dira, aldageletan edo espazio txikiagoetan egin beharrean.

### *LAGUNTZAILEAK EDO IKUSLEAK*

Instalazioetan ezingo da egon jardueran parte hartzen ari diren taldeetako kide ez den ikuslerik edo beste inor, ez lehiaketetan, ez saio edo entrenamenduetan.

Kirol-espaziora honako hauek baino ezin izango dira sartu: kirolariak eta eskola-lizentzia duten edo dagokion jardueran ofizialki izena emanda dauden teknikariak; lehiaketa-jardueren kasuan, epaileak, arbitroak eta antolatzaileak; kirol-erakundeetako osasun-arduradunak eta

eskolakiroleko arduradunak, dagokion administrazioan horrela egiaztatuta daudenak; jarduerak egiten diren kirol-instalazioetako langileak; eta administrazio publikoek baimendu dituzten beste pertsona batzuk.

Kirolari adingabeak jarduerak irauten duen denboran bakarrik egongo dira kirol-espazioetan. Jarduerak amaitu ondoren, ezingo dira kirol-espazioan gelditu.

Adingabeei jardueretara laguntzen dieten pertsonak instalazioetako edo esparruetako sarrerako ateetan utziko eta jasoko dituzte. Adingabeek ezinbestez behar badute arropaz aldatzeko edo antzeko laguntza, laguntzaileak osasun-arduradunarekin harremanetan jarri beharko dira bere oniritzia izateko.

Lehiaketetan kirol-espazioetara sartu nahi duen edonork, sar daitekeela egiaztatu beharko du lizentziaren edo ziurtagiriaren bidez.

#### *KIROL-PRAKTIKARAKO EDUKIERA*

Kirol-instalazioetan, kirol-praktikarako gehieneko edukiera baimendutako edukieraren % 60 izango da.

Instalazioaren gehieneko edukiera instalazioaren sarreran adieraziko da. Osasun-arduradunaren erantzukizuna izango da jardueren eguneroko plangintzak edukieraren muga inoiz gaindituko ez duela gainbegiratzea.

Dena den, teknikariek kontrolatuko dute euren jarduerak burutzen ari diren kirol-espazioaren edukiera, inoiz gaindituko ez dela zaindus.

#### *AGURRAK ETA OSPAKIZUNAK*

Ez dira baimenduko kontaktu fisikoa eskatzen duten agurrak eta/edo despedidak edo ospakizunak. Kirolariek ekintza horiek ukitu gabe burutzeko, talde bakoitzeko teknikariek beste modu batera egitea proposatuko dute.

### **3.4. JARDUEREI LOTUTAKO BESTE ELEMENTU BATZUK**

#### *JOAN-ETORRIAK*

Ahal den guztietan, joan-etorriak modu aktiboan egitea (oinez, bizikletaz, patinetez) eta banaka edo, hala ezin bada, familia-unitatearen arabera egitea gomendatzen da.

Familia-unitate diferentetako pertsonak bidaiatu behar duten ibilgailuak erabiltzen badira, joan-etorrien esparruan administrazio eskudunak ezarritako arauak bete beharko dira.

#### *GIZARTE-DESABANTAILAN DAUDEN KOLEKTIBOEN BABESA*

Erakundeak, ahal duen neurrian, neurriak ezarriko ditu baliabide gutxien dituzten eta COVID19aren pandemiak ekonomikoki kaltetu dituen familiek kirol-jarduera egiten jarraitu ahal izan dezaten.

---

## 4. COVID-19ko KASUEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA

---

### 4.1. FAMILIEN ETA GAINERAKO PERTSONALAREN JARDUKETA

COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat duten —adibidez, 37<sup>o</sup>tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentsazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa— kirolariek eta erakundeko gainerako kideek ezingo dute kirol-jarduerara joan, ezta COVID-19a diagnostikatu dietelako bakanduak daudenek, edo COVID-19aren sintomak dituen edo diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari direnek ere.

Lehiatzen duten erakundeetako kirolarien gurasoek edo tutoreek, kirol-jarduera dagoen egun bakoitzean, hau hasi aurretik, kirolari horiek COVID-19aren sintomarik ez dutela egiaztatu eta ziurtatu beharko dute.

Halaber, etxeko norbaiti (adingabeari edo beste pertsona bati) COVID19a diagnostikatu badiote, kirol-erakundeari eta norberaren erreferentziako osasun-zentroari ohartarazi beharko diete eta, hala badagokio, ardurapean duten seme-alaba edo adingabea etxean eduki beharko dute. Lanordutik kanpo bada, eta premiazko sorospena beharrezkoa bada, hauek dira Osakidetzaren Larrialdietako telefonoak: Araba: 945 244444; Bizkaia: 944 10000; Gipuzkoa: 943 461111.

Ikasturtearen hasieran, familiek idatzizko konpromisoa hartuko dute kirol-erakundearekin alderdi horiek betetzeko. (Ikus eranskina IV familien erantzunkizunezko agiria)

Baldintza hori bera eta idatzizko konpromisoa eskatuko diete teknikariei, epaileei eta kirol erakundearen eskola-kiroleko jardueretan nahastuta dauden gainerako pertsoneri. (ikus eranskina V teknikarien erantzunkizunezko agiria)

## 4.2. KIROL-ERAKUNDEAREN JARDUKETA

### PERTSONALGOAREN/PARTEHARTZAILEEN ERREGISTROA

Erakundean parte hartzen duten pertsonak identifikatzeko kontrola eramango da osasun-agintariei lana errazteko, erakundeak jardueran parte hartzen duten jokalaria guztiak erregistratuko ditu, eta hauen eguneroko asistentzia jasoko du. Ondorengo datuak bilduko dira:

- Izen-abizenak
- Ikastetxea
- Taldea
- Ordutegia, instalakuntza
- Telefono-zenbakia
- Helbide elektronikoa

### COVID-19KO KASU BAIEZTATUAK

Kirol-erakundeko kirolari edo pertsonaleko kide batek COVID-19an positibo ematen duenean, erakundean protokoloa betetzeko izendatutako osasun arduradunak kasua Osakidetzako zerbitzuetara deribatuko du, dagozkien osasun-protokoloak aplikatzeko.

Halaber, erakundeko osasun-arduraduna osasun-agintaritzaren (aztarnariak) esku jarriko da eta, hala badagokio, berekin harremanetan izan diren pertsonen informazioa emango du.

### *COVID-19 SINTOMAK JARDUERAREN AURRETIK*

Zuhurtasun-printzipio gisa, entrenamendu, saio edo lehiaketa bat hasi aurretik, kirol-talde bateko pertsona batek sukarra edo COVID-19aren sintoma argiak dituen kasuetan, honako neurri hauek hartuko dira:

- Saioak edo entrenamenduak bertan behera geratuko dira, erakundeko osasunarduradunak, osasun-agintariekin harremanetan jarri ondoren, oniritzia eman arte.
- Talde-kirol bateko partida baten aurretik gertatzen bada, parte hartzen duen kirolerakundearen osasun-arduradunak beste taldeari/erakundeari jakinaraziko dio partida nahitaez bertan behera geratuko dela. Halaber, ahalik eta azkarren, erakunde antolatzaileari ere jakinaraziko dio honek jakin dezan eta behar diren neurriak har ditzan.
- Bakarkako kirol bateko lehiaketa baten aurretik gertatzen denean, parte hartuko duen kirolerakundearen osasun-arduradunak antolakuntza-erakundeko osasun-arduradunari jakinaraziko dio positibo eman duen pertsonaren kirol-taldeko gainerako kideek ez dutela lehiaketan parte hartuko.

### *COVID-19 SINTOMAK JARDUERAN ZEHAR*

Kirol-jardueran zehar gaixotasunaren sintomak (sukarra, eztula, arnasteko arazoak, etab.) agertzen badira, jarduerari lotutako teknikariek kirol-erakundearen osasun-arduradunari jakinaraziko diote. Honek, berriz, kirolariaren familia abisatuko du kirolaria jasotzera joan dadin. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, eta bertan baloratuko da egoera. Baloratu arte, pertsona bakandua mantenduko da. Gaixotasunaren sintomak kirol-erakundeko gainerako pertsonetan agertzen badira, haiek ere etxera joan beharko dute eta gomendio berberak bete beharko dituzte.

Erakundeko osasun-arduradunak, egoera zein den ikusita, une horretan bertan jarduera bertan behera geratuko den edo aurrera jarrai dezakeen aztertuko du. Bigarren kasu horretan, jardueraren teknikariei prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotz ditzaten eskatuko die: kontakturik gabeko jarduerak eta pertsonen arteko distantziak handitu, maskararen erabilera derrigortu (intentsitate txikiko jarduerak gauzatzea), eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higiene-neurriak maiztasun handiagoz hartzea, etab. Teknikariek muturreko neurri horiek euren kabuz hartu beharko dute, kutsatzeko aukera edo arrisku txikiena dagoela uste dutenean.

### *FAMILIEKIN ETA ERAKUNDEKO BESTE PERTSONA BATZUEKIN KOMUNIKAZIOA*

Erakundearen barruan gertatutako COVID-19ari lotutako kasu edo egoera baten aurrean, familiei edo erakundeko beste eragile batzuei jakinarazi behar dietenean, jakinarazpen hori, kasu bakoitzaren arabera, osasun-agintariek edo kirol-erakundeak berak egingo dute. Bigarren kasuan, jakinarazpena osasun-arduradunak egingo du beti (ez teknikariek).



---

## 5. DIZIPLINA-NEURRIAK ETA HAUEK BETETZEN DIRELA KONTROLATZEA

---

Kirol-erakundeak protokolo honetan finkatutako arauak ez betetzearekin lotutako hainbat arauhauste erantsi ditu Barne Araubideko Erregelamenduan, baita kutsatzeko arriskua handitzen duten jokabideekin edo jarrerekin lotutako beste batzuk ere.

Arau-hausteak:

- Arau-hauste arinak:
  - Kirol-espazioetan edo jardueran agintariak eta erakundeak maskararen erabileraren inguruan finkatutakoa ez betetzea.
  - Jarduera egikaritzeko finkatutako eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higiena ez betetzea.
  - Doministiku egitea, nahi gabe finkatutako babes-mekanismorik erabili gabe.
  - Behin eta berriz, instalazioko lurzorura edo beste azalera batzuetara txistua, mukiak edo antzekoak botatzea nahi gabe.

- Beste pertsona baten kirol-material pertsonala erabiltzea edo partekatzea, hori egitea debekatua dagoen kasuetan.
  - Beste pertsona baten arrisku bereziko banakako erabilerako materialak (ur botilak, toallak, zapiak, etab.) erabiltzea edo partekatzea nahi gabe.
  - Kontaktuko agur, despedida edo ospakizun bat nahi gabe egitea. ○Norberari dagozkion jardueren denboratik kanpo kirol-instalazioan egotea.
  - Aldagelak nahi gabe baimenik gabe erabiltzea.
- Arau-hauste larriak:
- Kirol-espazioetan edo jardueran agintariak eta erakundeak maskararen erabileraren inguruan finkatutakoa ez betetzea, behin eta berriz.
  - Jarduera egikaritzeko finkatutako eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higieena ez betetzea, behin eta berriz. ○Doministiku egitea, finkatutako babes-mekanismoak nahi gabe edo behin eta berriz erabili gabe.
  - Kirol-praktikaren arabera beharrezkoa ez den egoeratan beste pertsona bat ukitzea edo harengana gehiegi eta nahita hurbiltzea, haren borondatearen aurka. ○Beste pertsona baten kirol-material pertsonala erabiltzea hori egitea debekatu denean eta pertsona horrek baimendu ez duenean. ○Beste pertsona baten arrisku bereziko banakako erabilerako materialak (ur botilak, toallak, zapiak, etab.) nahita erabiltzea edo partekatzea.
  - Teknikarien, epaileen edo kirol-erakundeko edozein arduradunen agindu zuzenak ez betetzea, kutsatzeko arriskua eragin dezaketen egoeratan.
  - Agurrak, despedidak edo ospakizunak ukituz egitea nahita edo behin eta berriz.
  - Norberari dagozkion jardueren denboratik kanpo kirol-instalazioan egotea behin eta berriz.
  - Berariaz aldagelak baimenik gabe erabiltzea. ○COVID-19a duelako edo izan duelako haur bati edo beste pertsona bati iseka egitea edo hura mespretxatzea. ○Bost arau-hauste arin metatzea.
- Arau-hauste oso larriak:
- Kirol-espazioetan edo jardueran agintariak eta erakundeak maskararen erabileraren inguruan finkatutakoa ez betetzea, behin eta berriz eta berariaz.
  - Beste pertsona bati berariaz txistua, mukiak edo antzekoak botatzea edo doministiku egitea. ○Kirol-praktikaren arabera beharrezkoa ez den egoeratan beste pertsona bat ukitzea edo harengana gehiegi eta nahita hurbiltzea, behin eta berriz eta haren borondatearen aurka. ○Beste pertsona baten arrisku bereziko norbanakoak erabiltzeko materialak (ur botilak, toallak, zapiak, etab.) hartzea, nahita pertsona horri jakinarazi gabe.
  - Teknikarien, epaileen, osasun-arduradunaren edo kirol-erakundeko beste edozein arduradunaren agindu zuzenak ez betetzea, kutsatzeko arrisku handia dagoen egoeratan. ○Kirol-jarduerara COVID-19ari lotutako sintomak dituela joatea, behar diren neurriak hartu gabe edo hartutako konpromisoak bete gabe. ○Kirol-erakundeko kide den pertsonak edo bere bizikidetzaren unitateko beste pertsona batek COVID-19a duela edo honi lotutako sintomak dituela ez jakinaraztea kirolerakundeari.

- COVID-19a duelako edo izan duelako haur bati edo beste pertsona bati jazarpena edo bullying egitea, edo egoera horren inguruan gezur bat hedatzea. ○Hiru arau-hauste larri metatzea.

---

## 6. PROTOKOLOA ETA HARTUTAKO NEURRIAK HEDATZEA ETA EZAGUTZEA

---

Protokolo hau eta bere eraginpean dauden pertsona guztiek hartu beharreko neurriak ezagutzen direla bermatzeko, erakundeak, protokoloak eta neurriak zabaltzeko eta ezagutzera emateko bitarteko hauek erabiliko ditu:

### *HEDAPEN OROKORRA*

- Orokorrean, kirolarien familia guztiei eta erakundearen egitura osatzen duten pertsona guztiei —langileak eta boluntarioak— mezu elektronikoa bat igorriko zaie. Bertan, Protokolo hau onartu dela jakinaraziko zaie eta protokoloa bera modu eraginkorrean aplikatzeko laguntza eskatuko zaie.
- Erakundearen web-orriko gunean ([www.leintzeskolakirola.eus](http://www.leintzeskolakirola.eus)), datu hauek bilduko dituen espazio espezifikoa jarri da:

- Erakundeko osasun-arduradunaren izena eta harekin zuzenean harremanetan jartzeko modua (telefonoa eta posta elektronikoa). **(kontaktua atala)**  
**<https://leintzeskolakirola.com/kontaktua/> osasun arduradunak adierazi**
- Familientzako, kirolarientzako, teknikarientzako, epaileentzako, osasun arduradunarentzako eta erakundeko arduradunarentzako sortutako informazio materiala eta Protokoloa, baita egokitzen jotzen den gaiari lotutako beste edozein dokumentazio ere
- 
- Kirolguneen sarreran, aldageletan eta beste gune estrategiko batzuetan, prebentzioan eta higielean arreta berezia edukitzeko kartelak ipiniko dira.

### JAKINARAZPEN/SENTSIBILIZAZIO ESPEZIFIKOAK

Eragile edo kolektibo mota bakoitzerako informazio-materialen zein familiek, teknikariek eta epaileek sinatu beharreko konpromisoak adierazten dira jarraian:.

- **Familiak**, jarduerak hasi aurretik:
  - Posta elektronikoz bidez igorriko dena:
    - Erakundearen protokoloa
    - Prebentzio-neurriak eta parte-hartze baldintzak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua. Jarduerak hasi aurretik sinatu eta erakundeari entregatu beharko zaio.
  - **Jarduera-taldetan banatuta bilera telematikoak** egingo ditugu, neurri guztiak ezagutzera emateko, familien papera eta konpromisoa oso funtsezkoa dela azaltzeko, eta euren zalantzak edo kezak argitzeko.
- Erakundeko **teknikariak**, jarduerak hasi aurretik:
  - Posta elektronikoz bidez igorriko dena:
    - Erakundearen protokolora web guneko linka.
    - Teknikarientzako sortutako informazio-materiala, euren obligazioak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.
    - Kirolarientzako sortutako informazio-materiala, teknikariek euren ardurapean dituzten kirolariei lehen saioan/entrenamenduan jakinarazteko.
    - Derrigorrezko higie eta prebentzioko neurri pertsonalak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua. Jarduerak hasi aurretik sinatu beharko dute.
  - **Teknikariek bilera telematikoak egingo ditugu**, neurri guztiak ezagutzera emateko, haien papera eta konpromisoa oso funtsezkoa dela azaltzeko, neurriak betetzen ez diren kasuetan ezarriko diren zigorren berri emateko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko.
- **Kirolariak**:
  - Jarduerak hasi aurretik:
    - Familiek prebentzio- eta higie-neurriak betetzeak duen garrantziaz sentibilizatuko ditugu, kirolarien informazio-materiala oinarritzat hartuz.

- Jardueraren lehen egunean:
  - Teknikariek prebentzio- eta higiene-neurri guztien inguruko azalpen xehatua emango zaie, kirolarien informazio-materiala oinarritzat hartuz.
- Erakundeko **epaileak**:
  - Lehiaketak hasi aurretik, posta elektronikoz bidez edo fisikoki, dokumentu hauek banatuko dizkiegu:
    - Epaileentzako sortutako informazio-materiala, euren obligazioak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.
    - Derrigorrezko higiene eta prebentzioko neurri pertsonalak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua. Jarduera hasi aurretik sinatu beharko dute.

Erakundearen erabakiz edo agintari eskudunen arau edo ildo berrien ondorioz protokoloan egiten den edozein aldaketaren berri eraginpean dauden pertsona guztiei emango zaie posta elektronikoz, gutxienez. Halaber, aldaketak oso garrantzitsuak badira edo hasieran hartutako neurriak asko aldatzen baditugu, bilera telematikoak egin ahal izango dira aldaketa horiek azaltzeko/hedatzeko. Gerora, aldaketa horien berri kirolariei emango zaie, zuzenean familien eta teknikarien bitartez.

---

## 7. PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

---

Egoera berria dela kontuan hartuz, funtsezkoa da hartutako neurriak eta hautemandako jarrerak eta jokabideak etengabe ebaluatzea eta haien jarraipena egitea. Hala, erakundearen maila guztietan taldekako balorazioak edo bilerak planteatuko dituzte.

### *ZUZENDARITZA-ORGANOAREN BILERAK*

Osasun-arduradunak erakundearen zuzendaritza- edo administrazio-organoaren bileretan hartuko du parte. Bilera horietako gai-zerrendan COVID-19ari aurre egiteko erakundearen jarduketak eta egoera baloratzeko puntu bat ezarriko da.

Ikasturte honetako egoera berezia denez, hilabete bakoitzean gutxienez bilera bat egingo da. Edozein unetan ezohiko bileretarako deialdia egin ahal izango da edo bilerak maizago egin ahal izango dira, hala egitea beharrezkoa dela ikusten bada, batez ere ikasturtearen hasieran.

### *BILERAK TEKNIKARIEKIN*

Ikasturtea hasi ondoren, teknikariek bilera telematikoak egingo dira egoeraren balorazioa egiteko, neurriak zuzen aplikatzen ari direla ziurtatzeko, haiek egokitzeko —behar izanez gero, eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Horretarako, gutxienez, bilera hauek egitea proposatuko da:

- Jarduerak hasi eta astebetera.
- Jarduerak hasi eta hilabetera.
- 2. hiruhilekoaren hasieran.
- 3. hiruhilekoaren hasieran.

### *TEKNIKARIEN ETA KIROLARIEN ARTEKO BILERAK*

Asteko lehen saioan teknikariek taldean egiteko balorazio labur parte-hartzaile bat planteatuko dute, COVID-19ari aurre egiteko neurrien funtzionamendua aztertze eta, hala badagokio, jarrerak eta jokabideak zuzentzeko.

---

## 8- ERANSKINAK

---

(Ikus eranskina I. Osasun arduradunaren izendapen agiria)

### III. ERANSKINA

#### ERAKUNDEKO OSASUN-ARDURADUNAREN IZENDAPEN-EREDUA

JOSEBA ZABALA ELORZA jaunak, NAN zenbakia NAN-zk: 18593140D duenak, LEINTZEKO LEK MENDI KIROL KLUBA erakundearen legezko ordezkari gisa,

**JULEN ARAMBARRI ARREGUI jauna, NAN zenbakia 72746168C, duena, izendatzen du erakundearen osasun-arduraduna izateko ARIZMENDI IKASTOLAKO GAZTELUONDO GUNEAN.**

Adierazitako erakundeak osasun-arduradun izendatu duen pertsona horren ardurak, erakundearekin era subsidiarioan, honakoak izango dira:

- Erakundeak jarduten duten langile eta/edo voluntario guztiei, baita kirolari adingabeen familiei ere, jakinarazi beharko dizkie ezarrita dauden prebentzio-, jarduketa- eta, hala badagokio, diziplina-neurriak. Jatorrizko informazioa nahiz ondoren egindako edo zein aldaketa jakinaraziko die.
- Gainbegiratuko du adingabe bakar batek ere ez duela jarduera hasiko bere familiak protokoloaren berri baduela, protokoloa onartzen duela eta betetzeko konpromisoa hartzen duela jasotzen dituen agiria sinatu eta erakundera bidali arte. Berdin jokatuko du teknikariekin eta arbitroekin jarduerari hasiera eman aurretik.
- Etengabe gainbegiratuko ditu erakundearen jarduerak, hain zuzen, protokoloan jaso diren prebentzio- eta higiene-neurri guztiak eta eskumenak dituzten agintariak ezarritako gainerako arauak betetzen direla ziurtatzeko.
- Jarduketa koordinatuko du eta beharrezko komunikazioa ezarriko du osasun-agintariekin eta/edo familiekin edo eragindako pertsonekin baldin eta jarduerak garatzen diren bitartean sintomak dituen persona bat edo COVID-19 kasu bat hautematen bada.
- COVID-19ari aurre egiteko prebentzio-neurriak ez betetzeagatik eragindako arriskuekin zerkusia duten arau-haustek erakundearen barne-araubideko edo diziplinako erregelamenduan sartzeko proposamenak garatuko ditu eta gobernu- edo zuzendaritza organora bidaliko ditu haiek onarditzaten.


- Protokoloa betetzen ez den kasuetan erakundeko zuzendaritza- edo administrazio- organoak hartu beharreko diziplina-neurriak ezartzeko proposamena egingo du.
- Beharrezko kudeaketak egingo ditu protokoloarekin zer ikusia duen informazioa erakundearen web gunean jarrita egon dadin. Jatorrizko informazioa nahiz ondoren egindako edozein aldaketa jarriko da.
- Dagozkion salbuespenak ezarriko ditu aldagelak erabiltzeari, laguntzaileak sartu ahalizateko baimenari eta antzekoei dagokienez.
- Protokoloari buruz egiten den edozein informazio-eskaerari erantzungo dio.
- Protokoloa etengabe ebaluatuko du eta, hala badagokio, hura egokitzeko proposamenak helaraziko dizkio erakundeko zuzendaritza- edo administrazio- organoari.

ARRASATEn, 2020ko irailaren 21(e)(a)n.

ERAKUNDEAREN LEGEZKO ORDEZKARIA  
(PRESIDENTEA)



ADIERAZITAKO ARDURAK ONARTZEN  
DITUEN OSASUN-ARDURADUNA





(Ikus eranskina II. Prestakuntza Beteta izanaren agiria edo diploma)



(Ikus eranskina III. Iturripe kiroldegiko protokoloa)

## ARRASATEKO KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA

### NORMATIVA DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS DE ARRASATE

#### COVID-19ak eragindako egoerak dakartzan NEURRI GEHIGARRIAK

## ITURRIPE, KANTXA ESTALIDUN ERAIKINA

### Erabilera irizpideak // Criterios de utilización

- Iturriperen **erabilera baimendutako ikastetxe eta kirol elkarteei mugatua egongo da**. Erakunde bakoitzak, ikastetxe zein kirol elkarteek, aurretik kirol sailarekin adostutako ordutegian baino ez dute Iturripe erabiliko.
- *La utilización de Iturripe **estará delimitada a los centros educativos y clubes deportivos autorizados**. Cada entidad, sea centro educativo o club deportivo, solo podrá utilizar Iturripe en el horario acordado con el Departamento de Deporte.*
- Instalazio barruan **maskararen erabilera derrigorrezkoa da**. Erabiltzaileak maskara kendu ahal izango du intentsitate altuko jarduera fisikoa egiten ari den bitartean, gainontzean maskara jarrita izan beharko du.
- *Dentro de la instalación **es obligatorio la utilización de la mascarilla**. La persona usuaria únicamente podrá desprenderse de la mascarilla cuando esté realizando actividad física intensa, el resto del tiempo deberá tener la mascarilla puesta.*
- Instalazioan erabiltzaileek **metro eta erdiko distantzia mantendu beharko dute beste pertsonetikiko**. Horrez gain, igarotze guneetan erabiltzaileak ezingo dira gelditu ezta beste erabiltzaileekin elkarrizketarik izan igarotze guneak ez oztopatzeko.
- *Dentro de la instalación la persona usuaria **deberá mantener en todo momento el metro y medio de distancia respecto a las demás personas**. Además, no podrá detenerse en las zonas de paso ni mantener conversaciones con el objetivo de no entorpecer los desplazamientos por la instalación.*
- Instalazioan ikasle/kirolari eta beharrezko irakasle/teknikariak baino ez dira egongo, ez dago baimendua gainontzeko pertsonen sarrera. Honen ardura erabilera ordua dagokion ikastetxe/kirol elkarteari dagokio. Beraz, ikastetxe/kirol elkarte instalaziora sartzean atea itxiko da eta ez da bestelako pertsonarik instalazioan sartuko.
- *Solo podrán entrar en la instalación las personas **estudiantes/deportistas y el personal docente/técnico indispensable**, no estará autorizada la entrada de*

*ninguna otra persona. La responsabilidad de ello recaerá en el centro educativo/club deportivo que tenga asignada la hora de utilización. Por ello, cuando el centro educativo/club deportivo entre en la instalación se cerrará la puerta y no se dejará entrar a personas ajenas.*

- **Ikastetxe zein kirol elkarteek puntualtasunez beteko dituzte instalazioan sartze eta irteerak.** Instalazio barruan ordutegi aldaketetan pilaketarik gertatu ez dadin, sartzera doan taldeak barruan dagoena irten arte itxaron beharko du. **Hau da, instalazioa utzik geratu arte ezingo da talde berria sartu.**

- ***Los centros educativos y los clubes deportivos entrarán y saldrán de la instalación con rigurosa puntualidad.*** Para que no se produzcan aglomeraciones en las entradas y salidas, el grupo que entra en la instalación deberá esperar a que salga el grupo que ya está dentro. ***Es decir, hasta que la instalación esté vacía el nuevo grupo de personas no podrá entrar.***

- Iturripeko instalazioa erabili behar duen ikastetxe eta kirol elkarte orok **COVID19aren inguruko protokoloa aurkeztu** behar du Arrasate Udaleko Kirol Sailean eta ikastetxe/kirol elkarten ardurapean egongo da egunean indarrean dauden osasun aginduak betearaztea.

- *Los centros educativos y los clubes deportivos que vayan a utilizar Iturripe deberán presentar al Departamento de Deporte del Ayuntamiento de Mondragón un protocolo COVID-19 y recaerá bajo su responsabilidad el cumplimiento de la normativa de sanidad vigente.*

- **Aldagelak eta ile lehorgailuak ez dira erabilgarri izango.** Aldagelak giltzaz itxita mantenduko dira momentu oro.

- ***Los vestuarios y los secadores de pelo no podrán utilizarse.*** *Los vestuarios permanecerán cerrados con llave en todo momento.*

- **Erabilgarri izango dira gradetako komunak.** Gehienezko aforoa adieraziko da eta xaboiaren existentzia bermatuko da.

- **Se podrán utilizar los baños situados en la grada.** Se delimitará el aforo y se garantizará la existencia de jabón.

- Instalazio barruan erabiltzaileek **adierazitako noranzkoak jarraitu** beharko dituzte erabiltzaileen arteko gurutzaketak saihesteko. Gradetako komunetara igotzeko eskumako eskilarak erabiliko dira eta beheko solairura jaisteko berriz, ezkerreko eskilarak (karteldegia bitartez adieraziko da).

- *Dentro de la instalación las personas usuarias **deben seguir las direcciones marcadas** para evitar cruces entre otras personas usuarias. Para subir a los baños de las gradas se utilizarán las escaleras de la derecha y para bajar las escaleras de la izquierda (se marcarán con carteles).*

- **Material gelak 2 pertsonako gehienezko edukiera izango du** eta ikastetxe/kirol elkarteek beraien materiala baino ezingo dute ukitu. Erabilitako materiala behar bezala gordeta utziko da ikastetxe/kirol elkarte bakoitzari dagokion gunean gainontzeko pertsonen inongo trabarik sortu gabe.

- ***La sala de material tendrá un aforo limitado de dos personas*** y cada centro educativo/club deportivo únicamente podrá tocar su material. El material utilizado quedará debidamente retirado en la zona asignada sin entorpecer el desplazamiento del resto de personas.

(Ikus eranskina IV familien erantzunkizunezko agiria)

## IV. ERANSKINA

### 2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA-KIROLEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK EZAGUTZEKO, ONARTZEKO ETA HAIEKIN KONPROMETITZEKO DOKUMENTUA AITAK/AMAK EDO TUTOREAK

Klikatu hemen testua idazteko. jaunak/andreak, NAN/AIZ zenbakia klikatu hemen testua idazteko. duenak, bere izenean eta Klikatu hemen testua idazteko. interesdunaren (adingabearen) aita/ama/tutore gisa,

#### HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

- Jaso eta irakurri dut jardueraren ardura duen erakundeak COVID-19ari aurre egiteko prestatu duen Prebentzio eta Jarduketa Protokoloa, eta badakit bertan zer ezartzen den.
- Hitzematen dut kirol-erakundearekin lankidetzan jardungo dudala protokoloan ezarritako neurriak, bereziki nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea kontzientziatzearekin eta sentibilizatzearekin zerikusia dutenak, betetzeko, prebentzio- eta higiene-neurriak hartzeko bere erantzukizun indibidualari dagokionez.
- Saio, entrenamendu edo lehiaketa bakoitzaren aurretik egiaztatuko dut nire ardurapean dudan seme-alabaren edo adingabearen osasun-egoera, eta COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat badu, adibidez, 37°tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentiazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa, ez da jarduerara joango. Horrez gainera, berehala emango diot egoera horren berri kirolerakundeko osasun-arduradunari eta dagokion osasun-zentroari.
- Era berean, kirol-erakundeko osasun-arduradunari jakitera emango diot familiako bizikidetzaren unitateko pertsona bat (kirola egiten duen adingabea bera edo beste pertsona bat) COVID-19a diagnostikatu diotelako isolatuta badago edo COVID-19aren sintomak dituen edo COVID-19a diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari bada.
- Baimena ematen dut, baldin eta COVID-19a diagnostikatutako pertsonen kontaktuak aurkitzeko osasun-agintariek eskatzen badute, erakundeak nirekin edo tutorea den beste pertsona batekin harremanetan jartzeko erregistratuta dituen datu pertsonalak emateko.

- Nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea ez dago osasun-agintariak ezarritako arrisku-talderen batean, edo, hala balitz, egoera horren berri emango diot kirolerakundeari jarduerari hasiera eman aurretik, eta, kasu horretan, nire erantzukizunpean parte hartuko du jardueran.
- Onartzen ditut kirol-erakundeak jardueretan parte hartzeko ezarritako baldintzak eta, ondorioz, baimena ematen diot nire ardurapean dudan seme-alabari edo adingabeari 2020-2021 ikasturteko eskola-kiroleko programan parte hartzeko.

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ (e)an

Izenpetua

Klikatu hemen testua idazteko.

(ikus eranskina V teknikarien erantzunkizunezko agiria)

## V. ERANSKINA

### 2020–2021 IKASTURTEKO ESKOLA-KIROLEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK EZAGUTZEKO, ONARTZEKO ETA HAIEKIN KONPROMETITZEKO DOKUMENTUA ERAKUNDEKO TEKNIKARIAK ETA GAINERAKO PERTSONALA

JULEN ARAMBARRI ARREGUI jaunak/andreak, NAN/AIZ zenbakia 72746168C duenak

#### HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

- Jaso eta irakurri dut jardueraren ardura duen erakundeak COVID-19ari aurre egiteko prestatu duen Prebentzio eta Jarduketa Protokoloa, eta badakit bertan zer ezartzen den.
- Protokoloan ezarritako neurrien inguruan kirol-erakundearekin elkarlanean jarduteko konpromisoa hartzen dut, bereziki zuzentzen ditudan jardueren barruan nire ardurapean dauden adingabeek bete behar dutenari lotutakoak eta, kirol-jardueren barruan zein jardueretatik kanpo, hirugarrenak kutsatzeko arriskua ekiditeko neuki eduki behar dudan erantzukizunari lotutakoak.
- Saio, entrenamendu edo lehiaketa bakoitzaren aurretik egiaztatuko dut nire osasunegoera, eta COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat badu, adibidez, 37<sup>o</sup>tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentrazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa, ez da jarduerara joango. Horrez gainera, berehala emango diot egoera horren berri kirol-erakundeako osasun-arduradunari eta dagokion osasun-zentroari.
- Era berean, kirol-erakundeako osasun-arduradunari jakitera emango diot nire familiako bizikidetzaren pertsona bat COVID-19a diagnostikatu diotelako isolatuta badago edo COVID-19aren sintomak dituen edo COVID-19a diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari bada.
- Baimena ematen dut, baldin eta COVID-19a diagnostikatutako pertsonen kontaktuak aurkitzeko osasun-agintariek eskatzen badute, erakundeak nirekin harremanetan jartzeko erregistratuta dituen datu pertsonalak emateko.

- Ni, ez nago osasun-agintariak ezarritako arrisku-talderen batean, edo, hala balitz, egoera horren berri emango diot kirol-erakundeari jarduerari hasiera eman aurretik, eta, kasu horretan, nire erantzukizunpean parte hartuko dut jardueran.
- Onartzen ditut kirol-erakundeak parte hartzeko 2020-2021 ikasturterako ezarritako baldintzak.

Arrasate(e)n, 2020(e)ko Irailaren 25(e)an

Izenpetua:

